

GNOMO ARROSA

1.- Deskribapena

Gizon eta emakumeen sentimenduei buruzko "Gnomo arrosa" ipuina entzun eta gogoeta egitean datza.

2.- Helburuak

- Gizonak eta emakumeek sentimendu berberak dituztela konturatzea.
- Gure sentimenduak ezkututzen ditugunean zer gertatzen den ikustea.
- Elkarrekin harreman naturalak eta argiak izaten ikastea.

3.- Partaideak

Gutxienez 10 pertsona.
Adina: 8 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Marrazkiak/collageak egiteko materiala.

5.- Abiapuntuko arauak

1. Talde handia.
2. Bakarka.
3. Talde handia.

Galderen bidez gidatutako eztabaida.

6.- Garapena

Dinamizatzaileak "Gnomo arrosa" ipuina ozen irakurriko du. Ondoren, haurrek ipuinari buruzko iritzia emango dute, eta elkarrekin eztabaidan hasiko dira. Dinamizatzaileak galdera batzuk egingo dizkie beren iritzia ezagutzeko.

Jarraian, haurrak taldeka jarriko dira gehien hunkitu dituen ipuinaren zatiaren arabera, eta zati hori marrazkien eta/edo collageen bidez irudikatuko dute.

Azkenik, talde bakoitzak beste taldeei marrazkia erakutsiko die eta bere esanahia azalduko die.

ALBOAN. *Munduko Hiritarrok. Gatazketan nola jokatu.*

Aldaera: Talde batzuek ipuina mimikaren bidez irudika dezakete, eta beste batzuek antzerkiaren bidez.

7.- Ebaluazioa

Nor zen gnomo arrosa? Zer aurkitu zuen? Zer zeukaten banatuta gizakiek? Zeintzuk haserretu zitezkeen, baina ezin zuten negarrik egin? Zeintzuk egin zezaketen negar eta beldurra sentitu, baina ezin zuten haserrea erakutsi? Zer gertatzen zitzaion beren emozioak adierazi ezin zituzten pertsonen? Neskek nolako sentimenduak eta emozioak dituzue? Eta mutilek? Desberdinak al dira? Zergatik? Zuen sentimenduak ezkutatu egiten al dituzue? Zeintzuk? Zer gertatzen da sentimenduak ezkututzen dituzuenean? Beraz, ipuin honek zer erakutsi nahi digu?

8.- Iturria

ALBOAN. *Munduko Hiritarrok. Gatazketan nola jokatu.*

2.1. Fitxa

GNOMO ARROSA

Bazen behin, orain dela urte asko, Gnomo Arrosa bat. Diotenez, dinosauroak gure planetan agertu baino lehenagotik zen jakintsua.

Gustuko zituen basoko hezetasuna eta iluntasuna, ez zen inoiz handik irteten, eta pozik bizi zen animalien artean. Baina, egun batean, ahotsak entzuten hasi zen, pertsonen ahotsak. Horrek jakin-mina sortu zion eta basora egur bila edo paseatzera etortzen zirenak zelatatzea erabaki zuen. Laster, jendea ezagutzeko interesak oihaneko mugetatik irtetera bultzatu zuten, herrietara eta hirietara. Han, beti ezkutatuta, gizonak eta emakumeak zer esaten zuten entzuten zuten denbora luzez.

Eta, horrela, harrিতuta utzi zuen gauza bat aurkitu zuen: gizon-emakumeak sentimenduak eta emozioak banatu zituzten beren artean... Norbaitek noizbait zehaztu zuen sentimendu batzuk gizonentzat zirela eta beste batzuk emakumeentzat.

Gizonak indartsuak izan zitezkeela, haserretu egin zitezkeela eta sumin handia eduki zezaketela esan ohi zen. Sumin hori erakuts zezaketen, baina ezin zuten negarrik egin.

Emakumeak, berriz, negar egin zezaketen eta ahulak izan zitezkeen, baina ezin zuten inoiz beren indarra, amorrua eta haserrea erakutsi. Emakumeak bakarrik eduki zezaketen beldurra eta gizonak ausardia...

"Hori da zentzugabekeria!", esan zion Gnomo Arrosak bere buruari gizon tristeak negar ez egiteko ahalegin handia egiten ikusten zituen bitartean, emakume haserretuak isiltasuna gordetzen, gizon beldurtuak beren beldurra ezkututzen eta emakumeak edozer gauzagarik negar egiten, ahulak zirela erakusteko.

"Horrela ezin da bizi!", zioen Gnomoak. Jendearen ideia horiek guztiek nahastea nagusitzea lortu zuten: Norentzat zen barrea? Gizonentzat? Emakumeentzat? Norentzat?...

Askatasunez ez mintzatzeagarik, denak serio ibiltzen ziren, inork ez zuen barre egiten.

Sentimenduak eta emozioak nahasteagarik, sentitzen zutena ez adierazteagarik, besteekin ez fidatzeagarik, gizon-emakumeak askotan eztanda egiten zuten!!!!... Eta, orduan, gauza izugarriak gertatzen ziren: gezurak, gerrak, hilketak, bidegabekeriak, hainbeste gauza txar!

Egoera horren aurrean etsirik, Gnomo Arrosak pertsona-talde bat bildu zuen (hori orain dela urte asko gertatu zen) eta gauza batzuk proposatu zizkien. Oker zeudela esan zion, sentimenduak eta emozioak guztienak direla, bai gizon eta bai emakumeenak. Ez zela itxuririk egin behar esan zion, ez disimulatu, ezta askatasunez hitz egitea saihesti ere...

Emozio eta sentimendu guztiak hartu eta aztertzeko, ezagutzeko esan zion, haien izenak ikasi eta maitatzeko. Gero, sentimendu eta emozio horiek mundu osoan zabaltzeko eskatu zion, jende guztiari, haiek ere bere egin zitzaten eta erakuts zitzaten!

Harrezkero, hori egiten dakiten pertsona asko daude, gizonak zein emakumeak. Beste pertsonengan konfiantza dute, eta ia inoiz ez diote beren buruari gezurrik esaten, ezta besteei ere; beren sentimenduak eta emozioak askatasunez adierazten dituzte, eta ia inoiz ez dute eztanda egiten!

Hala ere, oraindik gizon-emakume askok ahaztu egiten dute zer diren barrea, negarra, harridura, samurtasuna, malenkonia eta ia sentimendu guztiak...

Orduan, oker egoten jarraitzen dute, eztanda egiten jarraitzen dute!

Dakigunez, Gnomo Arrosa jakintsua aspalditik bizi da, elefanteak baino gehiago eta dinosauroak baino askoz ere gehiago... eta oraindik urte gehiago biziko da.

Eta zain jarraitzen du, ziur baitago egunen batean ikasiko dugula.

